



## ZERBITZUAK KONTRATATZEKO MEMORIA, OGP EUSKADI 2018-2020KO EKINTZA PLANA BETEARAZTEN DUEN EBALUAZIO PARTE HARTZAILEA INPLEMENTATZEKO ETA, BEREZIKI, 3. KONPROMISOARENA

### ZABALTZE PUBLIKORAKO ESKAINTZAREN EDUKIA

#### I. AURREKARIAK: OGP Euskadi ekimenaren interes publikoa

Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzaren kide dira (OGP) Eusko Jaurlaritza, 3 Foru-aldundiak, 3 hiriburu-udalak eta Innobasque, eta konpromisoa hartu dute 2018-2020ko OGP Euskadi Ekintza-plana betearazteko, zeina 2020ko abuztuan amaituko den. Ordurako, herritarrekin batera sortuta egon beharko da bigarren 2020-2022ko ekintza-plana.

Aliantzaren aurrean, Eusko Jaurlaritzak hartu du bere gain ordezkari politiko eta tekniko eta, ardura, berriz, Lehendakaritzan eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean dago.

Aliantzak ezarritako protokoloak, ekintza-planak eta haietan dauden konpromisoak jarraituz, segimendu eta ebaluazio ekintza zehatzak behar dira, hobekuntza egokiak emango dituztenak, hurrengo ekintza-planetan aurrera egiteko. Ebaluazio haien bidez, hauek zainduko dira: gardentasunaren printzipioa, kontuak ematea, herritarren parte-hartzea eta, gardentasuna eta kontuak ematea ahalbidetuko dituzten teknologiaren erabilera.

Konpromisoek uztaila-abuztuan amaitu behar dute; eta, orduan ere, amaituta egon beharko dute mugarriek eta produktuek.

Bestalde, 3. konpromisoa betearazteko lidergoa hartu du bere gain Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak, bereziki: Euskadiko herritarren parte-hartzeari buruzko berrikuntzaren ilaba, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren bidez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Innobasqueren lankidetzan; baita 2. konpromisoarena ere: Open Data Euskadi eta Linked Open Data, Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetzan.

#### **2018-2020ko Ekintza Plana**

5 konpromisoak bete-betean gauzatzen ari dira eta, bereziki, 1., 3., 4. eta 5. konpromisoei dagokienez, 1. fasean herritarrekin batera sortutako eredu kontrasteko proiektu pilotuak garatzen ari dira.

Horren amaieran, jarraitutako prozesuaren eta emaitzen autoebaluazio-prozesua beharko litzateke, Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzak kontratutako kanpoko erakunde gisa, IRM-k egingo duen ebaluazio-prozesuaz gain.

## **2. konpromisoa**

Datu publikoak irekitzeko fasean eta haiek berrerabiltzeko aurreikusitako zerbitzuak garatzeko fasean dago 2. konpromisoa, 1. fasean identifikatzeari heldu ondoren, ekintza-planean inplikaturako 7 euskal administrazioetan, herritarrentzat interesgarriak diren datu publikoak. Mugarrien artean, ez du aurreikusi autoebaluazio espezifikorik.

## **3. konpromisoa**

Lehenengo faseari ekin zaio, eta honetan datza: batetik, Euskadiko herritarren parte-hartzeari buruzko berrikuntzan ilab-aren kontzeptualizazioa eta, bestetik, gobernantza-eredua sortzea, 2018an egin ziren bi kontratazioen bidez: bata, jardunbide egokiak mapatzeko, eta bestea konpromiso-taldea dinamizatzeko eta gobernantza-eredua garatzeko.

Orain ari da exekututzen proiektuaren bigarren eta azken fasea, zeina esperimentatzean datzan ilab-en lehen produktu transferigarriak emango dituen 4 proiektu pilotuen bitartez: Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin batera elkarlanean egindako prozesu parte-hartzaileen ahalmen salutogenikoa; partaidetzako aurrekontuak Gipuzkoako Foru Aldundia buru dela eta hainbat udalen lankidetzarekin; Thinking Fadura, Getxoko Udala buru dela eta Integra Rekalde, Bilboko Udala buru dela. DACIMA elkarrekin finantzatzen ari da 4 pilotu horien lehenengoa. Gipuzkoako Aldundia bigarrena eta, Getxo eta Bilboko udalak hirugarrena eta laugarrena, hurrenez hurren.

3. konpromisoa 2018ko irailean hasi zen eta 2020ko abuztuan amaitu beharko da; eta betearazteko bi urte haietan zehar garatzen joango diren hainbat ekintza eta mugarri dakartza berekin, Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzak ezarritako estandarrak jarraituz: gardentasuna, herritarrek parte hartzeko lankidetzeta-prozesuak, kontuak ematea...

OGPk onartutako dokumentuan daude jasota mugarriak eta ondoren azalduko dira.

Konpromisoaren ebaluazio parte hartzailea egiteko beharra jasotzen du 8. mugarriak.

## **II. 3. KONPROMISOAREN TESTUINGURUA: Euskadiko herritarren parte-hartzeari buruzko berrikuntzaren ilab-a**

---

### **Zer arazo konpondu nahi ditu eta zer dakar 3. konpromisoak**

Laborategi bat sortu nahi du konpromiso honek, ikerketak egiteko, entseguak egiteko, ikasteko eta elkarrekin konponbide zehatzak eta erabilgarriak bilatzeko, gai publikoetan herritarren parte-hartzearen pizgarria izan daitezen.

Sare-komunitate gisa kontzeptualizatu da laborategi hau, Euskadiko herritarren parte-hartzeari buruzko berrikuntzaren ilaba izenekoak, eta hainbat agentek osatzen dute, zeinek ikerketan eta esperimentazioan printzipio eta konpromiso zorrotzak, ikaskuntza eta lankidetzaren erantzukidekoak eta transferentzia sistematizatukoak partekatzen dituzten.

Herritarren PARTE-HARTZEARI BURUZKO BERRIKUNTZARI laguntzea eta ahalbidetzea da iLaben helburua, elkarrekin lotutako hiru esparrutatik: **prospekzioa**, (antena eta radarra izatera bideratuta, garatze-bidean dagoena begiratzera eta joerak identifikatzera, problematika zehatzetan sakontzera eta bide berriak ikertzera, etorkizuneko agertokiak aurreratzera eta testatzera..., modu ireki, inklusibo eta parte-hartzailean, adimen kolektiboaren garrantzia azpimarratuz), **esperimentazioa** (pilotu eta prototipo zehatzak garatzera bideratuta, bilatuz bai partaidetza hobetzeko tresnen, metodologiaren edo prozeduren diseinua eta garapena, bai hainbat eremuren eta ezaugarrien erronka zehatzei aplikatutako irtenbideak, betiere ikaskuntzarako bokazioaz eta dibertsitate-ikuspegiak kontrolatutako arrisku-baldintzetan eginez), eta **ezagutzen eta esperientzien transferentzia** (orientazio bikoitzarekin: batetik, baldintzak ahalbidetzen laguntzea parte-hartzeari buruzko berrikuntza-prozesuak gara daitezen entzuteko, aholkuak emateko eta errazteko logika batetik; eta, bestetik, prozesuen, prospekzioaren eta esperimentazioaren emaitzen ebaluazioa eta sistematizazioa ere, beste testuinguru batzuetan eskalagarritasuna edo errepligarritasuna bilatuz, eta lagunduz agenteak konektatzen eta ekintzak egituratzen, zorrotasuna eta behar den prozedura-sistematika mantenduz eta arriskua ebaluatuz).

### **III. KONTRATUAREN BEHARRA INTERES PUBLIKOAREN BEHAR BAT ESTALTZEKO**

---

#### **2018-2020ko Ekintza Planaren autoebaluazioa**

Ondo bideratutako beste ekintza-plan bati ekiteko asmoz, 2018-2020ko Plana betearazteko prozesua eta lortutako emaitzak ebaluatu behar dira.

2020ko abuztuaren 30a baino lehen aurkeztu behar da 2020-2022ko Plana; hortaz, prozesuaren adierazleak ekainerako eduki behar dira eta irailerako emaitzen adierazleak.

Plana kudeatzeko, antolaketa-eredu bat konfiguratu zen, hainbat lankidetzaren gunerekin, zeinek autoebaluazioaren prozesuan hartu beharko duten parte, egindako prozesuak eta lortutako produktuak balioetsiz.

**Talde sustatzaile** bat osatu zen, OGP Euskadiren bultzatzailea; 7 administrazioek eta InnoBasquek osatu zuten, eta hauek zehazteko arduraduna da: zabaltzeko eta komunikatzeko

plana, antolaketa-eredua, ekintza-plana prestatzeko prozesua, ekintza-plana implementatzeko bitartekoak, emaitzen autoebaluazioa...

**Foro erregularra** ere osatu zen, eztabaidarako eta proposamenerako organoa den aldetik; planaren implementazioa monitorizatzen du, autoebaluazioari buruz eztabaidatzen du eta, zuzentzeko eta hobetzeko proposamenak egiten ditu.

**Foro irekia** kontsultarako, kontrasterako eta proposamenerako organo birtual eta presentziala da, zenbait eztabaida-ekitalditara gonbidatuta eta, plana prestatzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko deituta, beren-beregi sortutako OGP Euskadi webaren nahiz harremanetarako beste kanal batzuen bitartez, kontsulta ahalik eta gehien zabaltzeko.

Konpromiso-taldeak, konpromiso bakoitza implementatzeko sortutako lantalde gisa, euren jardueraren kontu ematen dute eta, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren bitartez, planaren mugarrak garatzeko eta hedatzeko bidea ematen dute.

### **3. konpromisoaren ebaluazio parte-hartzailea eta pilotuak**

Garapeneko bigarren eta azken fasean, 3. konpromisoaren kudeaketak ebaluazio parte-hartzailea izeneko 8. mugarrria dakar.

3. konpromisoari ekiteko, hasieratik sortu zen **konpromiso-talde** bat, aktibismo zibikotik, adituaren ikuspegitik eta euskal administrazioetatik etorritako 22 pertsonak osatuta, aktiboki hartu dute parte ilab-en kontzeptualizazioan eta gobernatzeko modua definitzeko prozesu osoan, eta, orain, elkarrekin diseinatutako eredua kontrastatzeko pilotuen monitorizazioan eta jarraipenean, baita produktu transferigarriak lortzeko ere jardunbide egoki hedagarri gisa.

**Foro irekian**, kontraste- eta zabaltze-jarduerak ere sortu dira, baita egun jardunean dauden **4 pilotuetarako pilotaje-taldeak** ere.

Fase guztietan 3. konpromisoa betearazi ondorengo prozesu-adierazleen eta emaitzen kontrastea hartzen du 8. mugarriaren barruan egin beharreko ebaluazio parte-hartzaileak; eta kontuan hartzen ditu garapenean parte hartu duten pertsonen eta erakundeen ikuskerak, hobetzeko arloak eta proposamenak identifikatuz etorkizuneko konpromisoak burutzeko 2020-2022ko OGP Euskadi Ekintza Plan berri baten esparruan.

Gutxienez, honi buruzko azterketa aurreikusi beharko du ebaluazioak:

- Konpromiso-taldearen jarduera eta dinamika, konpromisoa zuzen gauzatzen dela zaintzeko sortuta, birbideratzea beharrezkotzat joz gero, kontuak ematea foro irekiaren eta foro erregularren aurrean.
- Betearazitako 4 pilotuen pilotaje-taldeen jarduera eta dinamika
- Konpromisoa betearaztetik lortutako produktuekin asebetetzea:
  - iLab-en kontzeptualizazioa
  - iLAB-en gobernantza-eredua
  - 4 proiektuen eta jardunbide egoki transferigarrien garapena
- Lortutako produktuen transferentzia-prozesua.
- Prozesu parte-hartzaileek administrazio-kulturan eta administrazio publikoak kudeatzeko ohiko moduan duten inpaktua ebaluatzeko eredua, tokiko administrazio baten barne-egituran partaidetzako inpaktua neurtuz eta ebaluatuz Thinking Fadura pilotuaren esparruan.

**Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak ez du berezko baliabide pertsonalik ezta materialik ere ebaluazio-lan hori egiteko;** izan ere, proiektu-arduradun lanpostu bakarra baino ez du 2018-2020ko Ekintza Plana sustatzeari bideratuta, 5 konpromisorekin; horrez gain, gainerako proiektuez ere arduratzen da, hain zuen, gardentasunari, herritarren parte-hartzeari eta gobernu onari buruzko gaietan esleituta, eta gardentasunaren bi teknikari lanpostuen ardura ere du, zeinek Open Data Euskadi sustatzeari eta GARDENA-Eusko Jaurlaritzaren gardentasunaren ataria mantentzeari ekiten dioten, eta lan-karga handia dute. Gainera, kontratatu behar denak ebaluazio parte hartzailereen metodologiak eta teknikak menderatzea eskatzen du...eta ez daude lotuta aipatutako lanpostuei.

**Gaur egun, ez dago indarrean dagoen kontraturik zeina kontratazio honen xedeko lanekin lotu daitekeen.**

#### **IV. KONTRATUAREN XEDEA**

---

Hau izango da, beraz, kontratuaren xedea:

1. **OGP Euskadiko 2018-2020ko Ekintza Plana betearazteko autoebaluazioa.**
  - a. Exekuzioan burututako prozesua. Ez da sartuko planaren diseinuaren ebaluazioa, IRMk, Aliantzaren ebaluazio-organo independenteak, ebaluatu baitzuen. Ebaluazio parte hartzaileri begira egingo da, hau da, kontuan hartuko da parte-hartzaileek foroetan egingo duten balorazioa (talde sustatzailea, foro erregularra, foro irekia eta konpromiso-taldeak), eta honi buruz:
    - i. Bakoitzaren funtzioak betetzea.

- ii. 5 konpromisotako bakoitzak betetzeko prozesuari buruzko balorazioa:
  - 1. gardentasun-maila, kontuak ematea, herritarren parte-hartzea eta, gardentasunerako eta kontuak emateko teknologien erabilera.
  - 2. Betearazte-maila: hasi gabea/mugatua/ funtsezkoa/ osoa
- b. 5 konpromisotan lortutako emaitzak
  - i. Lortutako produktuak
    - 1. Kalitatea eta berrikuntza balioestea
    - 2. Gobernuak irekitzen emandako laguntzaren balorazioa (okerragotzen laguntzen dute/ ez da aldatuko/ modu marjinallean/ nabarmenki /bikain)
  - ii. Beste emaitza batzuk: lankidetzaren sortzea, ikaskuntzak,...
- c. **Foro irekian aurkeztuko da** ekainean edo uztailan kontrastatzeko eta ekarpenak egiteko, baita gomendioak egiteko ere. Ez du barnean hartzen ekitaldirako aretoak eta logistika jartzea, ez eta haren zabalkundea ere, ekitaldiaren diseinua eta dinamizazioa soilik, hobekuntza-proposamenak eta gomendioak irekitzea, eztabaidatzea eta jasotzea bermatzeko, eta ekitaldia betearazteari buruzko eduki grafikoa eta ondorioak dituen dokumentua.

**2. 3. konpromisoa betearazteko ebaluazio parte hartzailea, abordatze global baten bidez, zeinak honetarako ekintzak edukiko dituen:**

- a. 3. konpromiso-taldearen eta pilotaje-taldearen parte-hartzaileen balorazioa, egindako lankidetzaren prozesuaren eta lortutako produktuaren kalitateari buruz, OGP Euskadiko 2018-2020ko Ekintza Planaren konpromiso horretan ezarritako mugarrin eta edukien arabera. Erabili ahal izango diren metodologiak eta tresnak askotarikoak izan daitezke: panelak, focus group, banakako galdeketa... aurrez aurrekoak edo birtualak. Erakunde hornitzailearekin koordinatuta egingo dira jarduerak horiek, zeina 3. konpromiso-taldea dinamizatzeaz arduratzen den, baita 4 pilotaje-taldeena ere.
- b. **Foro irekian, 3. konpromisoa ebaluatzetik ateratako emaitzen kontrastea eta azalpena, eta etorkizunerako hobetzeko proposamenak iLabaren funtzionamendurako**, ekainean eta uztailan egingo dena. Ez du barnean hartzen ekitaldirako aretoak eta logistika eskuratzea, ezta haren zabalkundea ere ez, ekitaldiaren diseinua eta dinamizazioa soilik, hobetzeko proposamenak irekitzea, eztabaidatzea eta jasotzea bermatzeko; eta ekitaldia betearazteari buruzko eduki grafikoa eta ondorioak dituen dokumentua.

3. **Orientazio metodologikoak, jakiteko noraino eragiten dion herritarren parte-hartzeak politika publikoen diseinuan eta betearazpenean eta nola eragiten duen hauek bezalako alderdi zehatzetan: kontratazioa, hirigintza, herritarren arreta, instalazioen mantentzea, etab...**, aholkularitza-lan baten bidez ebaluatzea Thinking Fadura pilotu-proiektuaren eremuan, zeinak ebaluazio-arloak definitzen lagunduko duen: prozesua, emaitzak,...; adierazleak zehazten; ebaluazio-mugarriak aukeratzeko eta datuak jasotzen; ebaluazioaren entregagaia diseinatzen; transferentzia-produktu baten definizioa, esaterako: aurretik dagoen gidaren bat hobetzea, gida espezifiko bat diseinatzea barne-egituraren parte hartzearen inpaktua ebaluatzeko, etab. Aholkularitza hori zehaztu daiteke, gutxi gorabehera, hemen:

- a. Bi orduko 2 lan saio Getxo Kirolak taldearekin, Thinking Fadura pilotu-proiektuan inplikaturik.
- b. kabineteko 10 lanordu
- c. 10 lanordu transferentzia-produktuaren diseinurako

Ez du barne hartzen transferentzia-produktuaren materialak edo euskarriak ekoiztea (dokumentuaren maketazioa, bideoa, etab.)

**V. Kontratu mota:**

---

Kontratu txikia

**VI. Esleitzeko gehieneko zenbatekoa:**

---

14.999 +BEZa= 18.149 euro

**VII. Prozedura:**

---

Balioetsi beharreko 3 eskaintza

**VIII. Balioetsi beharreko irizpideak:**

---

- Lan-proposamenaren kalitatea: Nola beteko diren KONTRATUAREN XEDEA atalean definitutako hiru aginduak, metodologiak, baliabideak,...: (% 60)
  - Proposamenaren definizioa eta argitasuna (planteatutako proposamena nahikoa zehatza da eta ezagutzeko aukera ematen du Kontratuaren xedean definitutako hiru aginduak) (% 10)
  - Proposamenaren kalitatea (proposamena bideragarria, osoa eta zorrotza dela ulertzen da) (% 30)

- Eskura jarritako baliabideak (planteatutako estrategiari ekiteko nahikoa baliabide ditu proposamenak) (% 10)
- Proposamenaren originaltasuna eta berrikuntza (lanak betearazteko ohikoak ez diren metodologiak edo tresnak gehitzen ditu proposamenak) (% 10)
- Prezioa (% 40)  
Formula= (Eskaintzarik onena/ balioesten den eskaintza) x 40

#### **IX. Betearazteko epea:**

---

2020ko otsaila-iraila, 1. agindurako eta 2020ko otsaila-uztaila, 2. eta 3. aginduetarako

#### **X. Ordainketak:**

---

1. Martxoan, % 50eko lehen ordainketa, kontratuaren xedean ikusitako hiru aginduetan aplikatu beharreko planteamendu orokorrak entregatu eta gero, iragankor bihurtutakoak eta garatutako lehenengo zenbait entregagai.
2. Irailean, % 50eko bigarren ordainketa, egindako lanen amaierako txostena eman eta gero:
  1. Hiru aginduen ebaluazio parte hartzailearen emaitzak
  2. Aholkularitzaren emaitzak eta ebaluazio-jarduerari buruzko ondorioak, honi buruz: nola eragiten dio herritarren parte-hartzeak politikaren diseinuan eta betearazpenean, Thinking Fadura piltuaren esparruan.
  3. Foro irekien jarduera-txostena eta ondorioak.

#### **XI. ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA**

---

Eskaintzak aurkezteko epea otsailaren 3tik 17ra izango da, hura barne.

Eskaintzak hona bidaliko dira:

[k-uriarte@euskadi.eus](mailto:k-uriarte@euskadi.eus)

**Haiek dira proposatutako kontratu txikiaren ezaugarriak, zeinak kontratuaren arau orokorrak errespetatzen dituen.**

Sin. Javier Bikandi Irazabal

HERRITARRAK HARTZEKO ETA ADMINISTRAZIOA BERRITZEKO ETA HOBETZEKO ZUZENDARIA.